

PDF irisgarria



Irakurketa Errazean

Memoria Guneak

Totemak

Zer ikusiko duzu hemen?

Hemen **Memoria Guneen** informazioa
aurkituko duzu Irakurketa Errazean.

Irakurketa Erraza
ulertzeko errazagoak diren dokumentuak
sortzeko modu bat da.
Irakurketa Erraza ondo etortzen zaie
ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonei,
eta adimen edo garapen desgaitasuna duten pertsonei.



Irudi urdin hau
Irakurketa Errazeko Europako logotipoa da.
Logotipo hau
dokumentu edo liburu batean ikusten duzunean,
horrek esan nahi du ulertzeko errazagoa dela.

Sarrera

Totem honek
Espainiako Gerra Zibilean gertatutako
informazioa ematen du.
Gerra honek 1936tik 1939ra arte iraun zuen.
Elkarren aurka borrokatu ziren bi taldeak
edo bandoak hauek izan ziren:

- **Bando Errepublikanoa.**
  Bigarren Errepublika monarkiaren aurka zegoen,
  hau da, errege bat egotearen aurka.
  Gainera, gobernu demokratikoa da.
  Horrek esan nahi du Gerra Zibilaren aurreko
  Espainiako gobernu-modua demokrazia zela.

- **Matxinatuen Bandoa.**
  Eskuineko alderdiak ziren.
  Eskuineko alderdiei ez zitzaizkien gustatzen
  Errepublikak ekarri zituen aldaketak.
  Aldaketa horiek
  berdintasun eta justizia gehiago lortu nahi zuten.

Gerra Zibila Emilio Molak eta Francisco Francok
Errepublika Gobernutik botatzeko
indarkeria erabili zutelako hasi zen.
Horri **estatu-kolpea** esaten zaio.

Francisco Franco diktadore bat zen
eta bere diktadurak frankismoa zuen izena.
Diktadore bat
diktadura batean gobernatzen duen pertsona da.
Pertsona horrek Gobernuaren botere osoa du.

Francisco Francoren
eta haren alde egin zuten pertsonen bandoa
Matxinatuen Bandoa izan zen.
Alderdi honetako pertsonak frankistak ziren.

Frankistek Francisco Francoren aurka zeuden
pertsona asko hil zituzten.
Beraiek bezala pentsatzen ez zuten
pertsona asko ere hil zituzten.
Pertsona horiek hobietan lurperatu zituzten.
Hobiak lurrean hildako pertsonak lurperatzeko
erabiltzen diren zuloak.

Askotan hiltzaileak
biktimen herrietako bizilagunak ziren.
Emakumeek, seme-alabek eta biktimen bilobek
urte asko eman behar izan zituzten
beren maiteen hiltzaileekin bizitzen.
Hau oso gogorra izan zen senideentzat
hiltzaileek ez zutelako zigorrik izan beren hilketengatik.
Senideek kalera edo eskolara joateko
beldur handia zuten.

Beste batzuek erbestera joan behar izan zuten.
Erbestea herrialde batetik ihes egitea
eta beste batean babesa bilatzea da.

Memoria Guneak

Izenburu horrek
Frankismoaren biktimak gogoratzeko
memorialak dauden Nafarroako tokiei
egiten die erreferentzi.
Memorial bat pertsonek
historian gertatu den zerbait gogoratzeko
eraikitzen den monumentu edo eraikina da.

Frankismoa Gerra Zibila eta gero
Espainianizan zen diktadura da.
Francisco Franco
frankismoaren diktadorea izan zen.

Memoria historikoa
pertsonok bizi izan dugun
eta guretzat garrantzitsua den historia da.
Ez dugu historia ahaztu behar.
Gogoan izan behar dugu.

Memoria historikoa oso garrantzitsua da:

- Senideek bere maiteei
  zer gertatu zitzaien jakiteko,
  haien gorpuzkiak lurperatu ahal izateko
  eta agur esan ahal izateko.
- Konponketa egoteko,
  hau da, senideak lasaitu edo kontsolatzeko.
- Biktimentzako eta haien senideentzako
  justizia egoteko.
- Historia ez errepikatzeko.
- Frankismoaren biktimak gogoratzeko.

- Pertsona guztiak bakean bizitzeko.
- Askatasuna, errespetua
  eta berdintasuna egoteko.

Memoria historikoa egoteko
oso garrantzitsua da
hobiak **desobiratzea**,
hau da, hobietan dauden pertsonen gorpuzkiak
lurpetik ateratzea.

Francisco Franco diktadorea
1975. urtean hil zen
eta orduan hasi zen trantsizio-garaia,
hau da, Espainiak diktadura izateari utzi zion garaia.

1978. urtetik aurrera
frankismoaren biktimen senideek
desobiratze asko egin zituzten.
Garai honetako deshbiratzeei
desobiratze goiztiarrak deitzen diegu.

Senideek ez zekiten
beren maiteen gorpuzkiak non zeuden.
Ez zegoen dokumenturik,
ez zuten dirurik
eraildako pertsonen gorpuak
aurkitu eta berreskuratzeko,
eta ez zuten politikarien babesik.

Senitartekoen gorpuzkiak non zeuden jakiteko
herri askotako biztanleei galdetu behar izan zieten.

Senitartekoentzat oso zaila izan zen
desobiratze goiztiarrak egitea.
Pertsona askok
beren maiteen gorpuzkiak aurkitu zituzten
baina oraindik senide askok
bere maiteen gorpuzkien bila jarraitzen dute.

Gehienetan badakigu gorpuzkiak norenak diren
Nafarroako Gobernuaren
DNA Bankuari esker.
DNA Bankuan maite dituzten pertsonen bila ari diren
senideen ileak edo listua gordetzen dira.
Horrela, gorpuzkiak aurkitzen dituztenean
DNA Bankuarekin bat datozen ala ez ikus dezakete.
Bat badatoz esan nahi du
aurkitu dituzten gorpuzkiak beren maiteenak direla.

Memoriaren Navarroako Institutuak
pertsonen eskubideak betetzea defendatu nahi du.

Bigarren Errepublika Gobernutik kentzeko
indarkeria erabili zuten frankistei ere
kritika bat egin nahi die.

Memorialekin memoria historikoa transmititzeko
modu asko daude.
Adibidez, indarkeria egon zen lekuetan seinaleak jartzen
edo frankismoaren biktimak
gogorarazten dizkeiguten monumentu,
pareke edo eraikinak egiten.

Nafarroan
Nafarroako Memoria Historikoaren lekuak
deitzen den lege bat dago.

Lege honek
memoria historikoaren
lekuak eta monumentuak babesten ditu.
Leku horiek seinalatzen eta zabaltzen ditu ere
horrela bakea, justizia eta bizikidetza
zein garrantzitsuak diren gogora dezagun.